

2021/09/14 11:38

EITB TALDEA - JARDUNALDIAK

EITBk Conecta FICTION ikus-entzunezko topaketetan parte hartuko du, Iruñean

EITB



Conecta Fiction jardunaldiak Iruñeko Baluarteen egiten ari dira.

Partekatu 1

EITBk ikus-entzunezko industria jomugan duen **Conecta FICTION** topaketetan parte hartze garrantzitsua izango du datozen egunotan. Atzo hasita, irailaren 16ra bitartean, Iruñeko Baluarte jauregian izango dira jardunaldiok, telesailak, telesail laburrak eta fikziozko dokumentalak ardatz hartuta.

Conecta FICTION ekimenak eta **Akitania Berriak, Euskadik eta Nafarroak osatutako ABEN Euroeskualdeak** akordio bat egin zuten, eremu horretan, jarduera-programa bat eginda, **ikus-entzunezkoen industria sustatzeko**. Conecta FICTION 2021 ekimenaren jardueren lehen zatia ekainean egin zen, eta bigarrena orain izango da formatu hibridoan, Iruñeko Baluarte jauregitik. **EITBk babes eta bultzada handia emango dio ikus-entzunezko industria eta talentua sustatzea helburu duten topaketa haei.**

Ekimen honen bidez, **networking profesionala, enpresa arlokoa eta ekintzailetzarena bultzatu** nahi dira Euroeskualdearen barnean, bertan sortutako ikus-entzunezko proiektuei balioa emanez eta ABEN hiru lurraldeetan produkzioari eta koprodukzioari laguntzeko dauden ekimenak ezagutaraziz. Bazkide eta proiektu berriak erakartzeko eta Europa barnean antzeko estatusa duten beste eremu batzuekin sinergiak sortzeko helburua ere badu.

"#Martyisdead" telesail txekiarraren aurrestreinaldia, gaur

Ekintzaz betetako programa izango da hiru egun hauetan. Asteartean, besteak beste, **"#martyisdead"** telesail txekiarraren aurrestreinaldia izango da. **Atal laburren telesail onenaren Emmy International saria** jaso zuen 2020an, eta ziberjazarpenera hurbilduko gaitu, Marty nerabeak jasan zuen jazarpenera, hain zuzen ere. Bere aitak heriotzaren ostean abiatutako duen ikerketaren bidez ezagutuko dugu Martyren historia, Interneten utzitako arrastoari jarraituz.

Telesailaren ondoren, mahai-ingurua izango da Sara Escudero aurkezleak gidatuta. Bertan, **Joselu Blanco** ETBko Programazio zuzendariarekin batera, honako hauek parte hartuko dute: **Jakub Kostal** ekoizlea (Txekiar Errepublika), **Pavel Soukup** zuzendaria (Txekiar Errepublika), **Carlos Quintanilla** "Control Z" (Netflix) telesailaren sortzailea, eta **Javier Erro** artista eta kazetaria.

Azaroan estreinatuko du ETB1ek "#Martyhilda" thrillerrea, **Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Sailarekin eta Segurtasun Sailarekin** aliantzan egindako proiektu baten harira. Benetako gertaeretan oinarrituta dago eta **ziberbullynga eta bere ondorioak** jorratzen ditu drama honek. Kolaborazio egitasmo honen bidez, gainera, EAeko ikastetxeetan telesailaren oinarritutako gaiak landuko dira. Horretarako, webgune berezi bat garatuko dute.

Zazpi proiektu finalistetako batek EITB Saria jasoko du

Euroeskualdeko **zazpi proiektu** iritsi dira Conecta FICTION programaren bigarren fasera. Proiektu **finalistak** hauek dira: "Luis Mariano, todos los colores del arco iris" (Lumiere Produzioak), "Entre muros" (Bixagu Entertainment, S.L.), "Azken abestia" (Gariza Films), "Gaia" (Aura Pictures), "Final cut" (A Film To Kill For), "Via sacra" (Macondo Productions) eta "Matadero Franklin" (Black Panther Films, S.L.).

Proiektu horiek aukera izango dute garapenera zuzendutako kontratuak sinatzera bideratutako hainbat sari irabazteko. **10.000 euroko EITB Saria izango da horietako bat, eta Andoni Aldekoa EITBren zuzendari nagusiak** banatuko du sari banaketa galan, irailaren 15ean, 19:30ean. France 3 Nouvelle-Aquitaine saria, NAEN Euroeskualdea saria, Acorde Music Library saria eta Navarra Televisión saria ere banatuko dira ekitaldi horretan.

Epaimahaikideen artean honako hauek daude: **Aritz Galarza**, ETBko Programazio eta Erosketa burua; **Blanca Baena**, K2000 eta Mediapro enpresetako ekoizle, zuzendari eta produktore exekutiboa; **Javier Holgado**, gidoilaria eta "The mysteries of Laura", "La templanza" (Amazon) eta "El desorden que dejas" (Netflix) telesailen sortzailea; **Solène Édouard**, SE Talent Management talentu-agentziako kidea; eta **Delphine Vialanet**, France 3 Nouvelle-Aquitaine telebista-kateko ordezkarria.

Programako jarduera guztien zuzendaritza eta koordinazioaz hauek arduratzen dira: Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa Euroeskualdea (ABEN), Akitania Berria eskualdeko gobernua, ALCA Akitania Berria, Eusko Jauriaritza, Basque Audiovisual, Nafarroako Gobernua, Navarra Film Industria eta Frantziak Espainian duen enbaxada/Institut Français de España. Babesle dira **EITB ikus-entzunezkoen taldea** eta France 3 Nouvelle-Aquitaine; eta kolaboratzaile dira Acorde Music Library eta Navarra Televisión.

Conecta Fiction-en programa osoa

HAU ZURE INTERESEKOA BADA, BALITEKE BESTE GAI HAUEK ERE IZATEA:
EITB Taldea

Harpidetu Newsletterrean!

Harpidetu EITBko Newsletterrean eta eguneko albisterik garrantzitsuenak jasoko dituzu zure ordenagailu edo mobilean.

ORAIN ALBISTE

- ### Aldi baterako lan-erregulazioko txostenak luzatzeko akordioa sinatu du Gizarte Elkarrizketarako Mahaiak
- Erlazionatutako edukia:
- Mitxel Lakuntza: "Jauriaritzak propagandarako baliatzen du mahai soziala eta UGT eta CCOO burua erakusteko"
 - Industriaren digitalizazioak ekar ditzakeen ondorioak murrizteko akordioa egin dute
 - Gizarte Elkarrizketarako Mahaiak martxan da ELA eta LAB gabe
 - Jauriaritzak, Confesbaskek eta UGT eta CCOO sindikatuek enplegua sustatzeko akordioak sinatu dituzte
- ### ALBISTEAK - ELA Mitxel Lakuntza: "Jauriaritzak propagandarako baliatzen du mahai soziala eta UGT eta CCOO burua erakusteko"
- ### KIROLA - SANTANDER LIGAN Reala sasoiari PSVri aurre egiteko, baina Barrenetxea lesionatu da
- ### ALBISTEAK - ARGINDARRAREN FAKTURA Espainiako Gobernuak enpresa elektrikoan irabaziak murriztuko ditu argindarraren faktura jaisteko
- ### ALBISTEAK - HERIOTZA Joseba Arregi Eusko Jauriaritzako sailburu ohia hil da
- ### ALBISTEAK - JOSEBA ARREGI HIL DA Eusko Jauriaritzak Arregiren irudia nabarmendu du eta atsekabea agertu du haren galeragatik
- ### ALBISTEAK - KORONABIRUSA 218 positibo berri atzeman dituzte EAEn eta ZIUetako oheen okupazioa 54ra jaitsi da
- ### KIROLA - PRENTSAURREKOA Oiaizola II.ak erretiroa hartuko duela iragar lezake bihar
- ### KULTURA - EITB-DONOSTIA ZINEMALDIA EITBk Zinemaldiarekin duen aliantza berritu du
- Albiste gehiago

PUBLIZITATEA

PUBLIZITATEA

Bisitatuena

BIDEOAK AUDIOAK

- Azingabe talde batek hezur pila aurkitu du ibitza dagoen moja-etxe zahar batean, Eibarren**
- 'Herri Txiki, Infernu Handi'** saioaren denboraldi berriaren estreinaldia, Garestik
- Alarma gorria piztu dute azken ikerketek: D ereduak ez du behar bezalako euskalduntzea bermatzen**
- Alex Udabe: "Ez zait bidezkoa iruditzen esatea 3 segundoko isunagatik ez dugula bandera irabazi"**
- Beñat Hach Embarek: "Eduki oso ederrak eta interesgarriak daude 'Bertsolari'ren podcastean"**
- 'Elkano, haizeari mila galdera' dokumentala, gaur, 22:30ean**

1 2 3

TELEBISTA: Programazioa Telebista Programak Bideoak	IRRATIA Euskadi Irratia Radio Euskadi Radio Vitoria Gaztea EITB Musika Programazioa Irrati programak EITB Euskal kantak	ALBISTEAK: Politika Aeb-ko Hauteskundeak Ekonomia Gaztea Mundua Jendea Bitxikeriak Teknologia	KIROLAK: Futbola Txirindularitza Italiako Giro Olinpiar Jokoak Pilota Surfa Arrauna Motorra kirol gehiago Futbol sailekapean Saskibalo sailekapean Kirolak zuzenean	KULTURA: Musika Zinema Literatura Artea Bertsolaritza Gastronomia Euskara Zinemaldia	BIDEO MULTIMEDIA Bideoak Argazkiak Audioak	GAZTEA 3 KLUBA EGURALDIA TRAFIKOA HAUTESKUNDEAK ZOKKETAK DOAN LOTERIA PARTE HARTU GAI INTERESGARRIAK HERRIAK ETA HIRIAK BLOG TEMATIKOAK NOLA IKUSI ETA ENTZUN EITB PODCAST PRENTSA ARETOA	Newsletterra Facebook Twitter Instagram Telegram LinkedIn YouTube RSS
---	--	--	--	---	--	---	--